

# GAZTEEI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO TXOSTENA

2022ko ABENDUA



## ETX

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

# AU RKI BID EA

## 01.

EAEko biztanleria gaztea 5

## 02.

Euskadiko emantzipazioaren mailak 6

## 03.

Kalitatezko enplegurako sarbidea eta gazteen kalitatea 9

## 04.

Gazteen emantzipazioaren kostua 11

## 05.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak 13

## 06.

Etxebiden izena emanda dauden etxebizitzaren eskaria 15

## 07.

Euskadiko etxebizitza-politikaren erantzuna 17

## 08.

Ondorioak 21



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa 30 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera 2000-2010-2021 .....	5
2. grafikoa 30 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera Euskadin, 2000-2010-2021.....	5
3. grafikoa Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko herritarren ehunekoa, adin bereko biztanleria osoarekin alderatuta, sexuaren arabera.....	6
4. grafikoa Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko herritarren ehunekoa, adin bereko biztanleria osoarekin alderatuta .....	7
5. grafikoa Emantzipaziorako batezbesteko adina Euskadin eta UE27n 2021ean (urteak).....	8
6. grafikoa 2021ean lanean ari ziren 16 eta 64 urte arteko biztanleen kopurua, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%).....	9
7. grafikoa Lanean ari diren pertsonen egungo enpleguaren antzintasuna, adin-taldearen arabera (%) .....	9
8. grafikoa 2021ean soldatapean dauden biztanleen kontratua, adin-taldearen arabera (%).....	10
9. grafikoa 2021ean lanean ari ziren herritarren hileko diru-sarrera garbiak, sexuaren eta adin-taldeen arabera .....	10
10. grafikoa Soldatadun 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek merkatu librean etxebizitza bat lortzeko lehen kuota ordaintzera bideratu beharko lukeen hileko soldata garbiaren ehunekoa, .....	11
11. grafikoa 18 eta 34 urte bitarteko soldatadun langile batek merkatu librean etxebizitza bat alokatzeko bideratu beharko lukeen hileko soldata garbiaren proportzioa (gastu gehigarriak kontatu gabe, hala nola fidantzak, hornigaien altak, bitartekarien ordainsariak...)	12
12. grafikoa Diru-sarreraren bat duten eta lehen etxebizitza lortzeko beharra duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen bilakaera, sexuaren arabera. 2019-2021.....	13
13. grafikoa Lehen etxebizitzara sartzeko beharra duten gazteak, horretarako diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituzten kontuan izanda, sexuaren arabera. 2021 .....	13
14. grafikoa Lehen etxebizitzara sartzeko beharra duten gazteak, horretarako diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituzten kontuan izanda, sexuaren arabera. 2021 .....	14
15. grafikoa Etxebiden izen eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, eskatzen duten erregimenaren arabera. 2019-2021 .....	15
16. grafikoa Etxebiden izena eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, eskatzen duten erregimenaren eta adin-tarteen arabera. 2019-2021 .....	16



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

Grafikoa 17 Etxebiden izen eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, sexuaren arabera. 2019-2021.....	16
Grafikoa 18 Babestutako etxebizitza esleitu zaien gazteak. 2019-2021 .....	17
19. grafikoa 2019-2021 aldian babestutako etxebizitza esleitu zaien gazteak, sexuaren bera .....	18
20. grafikoa Gaztelagun jasotzen duten gazteak 2022ko azaroan.....	18
21. grafikoa 2022an Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten gazte onuradunak .....	19
22. grafikoa 2021ean ASAP programako kontratuak eta 2022an BIZIGUNE kontratuak zituzten gazteak.....	20

**ETX**


ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

# 01. EAEko biztanleria gaztea

2022 hasieran, 705.020 pertsonak 35 urte baino gutxiago zituzten EAEn. Euskadiko hiru biztanletik batek, biztanleriaren % 32k Eustaten arabera.

Mendebaldeko gizarte gehienetan gertatzen ari den biztanleriaren zahartze-prozesua agerikoa izaten ari da Euskadin ere duela hamarkada batzuetatik, jaiotze-tasak baxuak direlako eta emantzipazio-prozesuak berantiarak.


## 1. grafikoa 30 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera 2000-2010-2021



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

30 urtetik beherako biztanleriaren gainean Eustatek dituen datu historikoek berresten dute Euskadiko gazteen biztanleria nabarmen jaitsi dela XXI. mende honetan. Hala, 2021ean, EAEn 30 urtetik beherako 610 mila pertsona zeuden, mende honen hasieran baino 321 mila gutxiago (% 34).

## 2. grafikoa 30 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera Euskadin, 2000-2010-2021



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

**ETX**


ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 02. Euskadiko emantzipazioaren mailak

Gazteriaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, Euskadiko gazteen emantzipazio-tasa nabarmen jaitsi da aurreko hamarkadan 35 urtetik beherako pertsonen artean. 2010ean % 43,7koa izatetik 2021ean % 32,9koa izatera igaro da EAEko gazteen artean. Ehuneko hamar puntu baino gehiago jaitsi da.

**3. grafikoa** Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko herritarren ehunekoa, adin bereko biztanleria osoarekin alderatuta, sexuaren arabera<sup>1</sup>.

Guztira



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Beharakada hori oso antzekoa da emakume eta gizon gazteen artean, nahiz eta egiturazko egoera dela eta, emakumeak izan diren historikoki emantzipazio-tasarik altuena dutenak, lan-baldintza okerragoak izan arren.

<sup>1</sup> Emantzipatutako pertsona da jatorrizko etxetik kanpo bizi dena, eta oinarri gisa hartzen dira "erreferentziako pertsona", "ezkontidea" edo "seniderik ez duen pertsona".


**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

Adinaren arabera, 30 urte arte emantzipazio tasa oso murrizta da, % 33ren azpitik dago, hau da: 34 urtetik beherako hiru gaztetik bat soilik dago emantzipatua EAEn. 30 urtetik beherako biztanleria hori da, beraz, emantzipazio-prozesuan oso atzeratuta doana.

30 urtetik aurrera, nabarmen igotzen da emantzipazio-tasa eta % 71,5ekoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean. Nolanahi ere, adin-talde horretako 10 gaztetik 3 ez da emantzipatu oraindik 2021ean.

**4. grafikoa** Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko herritarren ehunekoa, adin bereko biztanleria osoarekin alderatuta <sup>2</sup>.



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Aurreko hamarkadako emantzipazio-tasa horien bilakaera adin-taldeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke emantzipazio-tasen beherakada nabarmena izan zela 30 urtetik beherakoen artean. Emantzipazio-tasa % 5era murriztu da 25 urtetik beherakoen artean (2010ean % 9), eta % 32ra 25 eta 29 urte bitartekoen artean (2010ean, % 43).

Gazteen emantzipazioa geroz eta berantiarra da. Hala, 35 urte baino lehen emantzipatzen diren gazteen ehuneko txiki hori dela eta, Euskadiko emantzipazioaren batezbestekoa 29,7 urtekoa da Euskadin, Europako batez bestekoaren oso gainetik (26 urte).


<sup>2</sup> Emantzipatutako pertsona da jatorrizko etxetik kanpo bizi dena, eta oinarri gisa hartzen dira "erreferentziako pertsona", "ezkontidea" edo "seniderik ez duen pertsona".



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

### 5. grafikoa Emantzipaziorako batezbesteko adina Euskadin eta UE27n 2021ean (urteak).



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia eta EUROSTAT (Gazteriaren Estatistika, Youth data)



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA


OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 03. Kalitatezko enplegurako sarbidea eta gazteen kalitatea

Jakina den moduan, emantzipazio-prozesuen oinarria gutxieneko kalitatea duen enplegurako sarbidea da. Ordena horretan, 2017 hasieran apaltzen hasi zen Atzeraldi Handiaren inpaktuak egiturazko eragina izan zuen gazteen artean, eta, ondorioz, lana izan arren lanean ari ziren pertsona helduagoek baino lan-baldintza okerragoak zituzten.

Lan Merkatuaren Erroldaren 2021eko azken datuen arabera, 30 urtetik beherako herritarren enplegurako sarbidea oso murrizta da. Hala, 25 eta 30 urte arteko langileen kopuruak ozta-ozta gainditzen du % 40a. Aldiz, ehunekoa bikoiztu egiten da 30 eta 35 urte bitartekoen artean, eta % 80ko langa gainditzen du.


**6. grafikoa** 2021ean lanean ari ziren 16 eta 64 urte arteko biztanleen kopurua, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Oro har, lan-mundura berandu sartzen dira gazteak eta horrek etxebizitza lortzea baldintzatzen du. Begirada lanean ari diren gazteengan jartzen badugu, 30 urtetik beherako 10 pertsonatik 7k 2 urte baino gutxiago daramatza bere lanean, eta % 5,0k soilik daramatza bost urte edo gehiago bere oraingo lanean. 30 eta 34 urte bitartean dituzten pertsonen artean ere, hirutik batek soilik daramatza bost urte edo gehiago bere oraingo lanean.

**7. grafikoa** Lanean ari diren pertsonen egungo enpleguaren antzintasuna, adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

Laneko prekarietatea oso presente dago lanean ari diren gazteen artean. Lanean ari diren 30 urtetik beherako pertsonen erdiak ez du lan egonkorrik. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean egoera apur bat hobea da, baina lanean ari diren hiru pertsonatik batek enplegu prekarioa du.

### 8. grafikoa 2021ean soldatapean dauden biztanleen kontratu-mota, adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Beraz, laneko ezegonkortasuna emantzipazio-tasa baxuak azaltzen dituen ageriko faktorea da, eta 30 urtetik beherako pertsonen kasuan lan-merkatura sartzen diren pertsonen kopuru murrizta gehitu behar zaio. Halaber, kontratu mugagabea duten gazteen artean, batez besteko soldatak baxuak dira, batez ere emakumeen eta gazteen artean.

Lanean ari diren 25 eta 29 urteko pertsonek adierazi dute aurreko hilean, batez beste, 1.273 euro garbi kobratu zituztela; 30 eta 34 urte bitartekoen artean, aldiz, kopuru hori ia ez da handitu, hileko 1.558 euro. Beraz, oso urrun dago etxebizitza bat lortzeko beharrezko zenbatekotik, batez ere Euskadiko hiriburuen metropoli-eremuetan eta kostaldeko hainbat udalerritan, bigarren etxebizitzaren presioa baitute.

### 9. grafikoa 2021ean lanean ari ziren herritarren hileko diru-sarrerara garbiak, sexuaren eta adin-taldeen arabera



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY


## 04. Gazteen emantzipazioaren kostua

Aurreko atalaren azterketak berresten du gazteek emantzipazioaren kostu altuari egin behar diotela aurre etxebizitza bat erosteko edo jabetzan izateko.

Gazteen Euskal Behatokiaren kalkuluen arabera, ahalegin hori hileko soldata garbiaren % 58,7 da, euskal merkatu librean etxebizitza bat eskuratu nahi bada; hala ere, 2010aren aldean behera egin badu ere, ahalegin-maila maximo gisa gomendatutako % 30eko kotaren bikoitza izaten jarraitzen du. Estatuko beste lekuetan ez bezala, adierazle horrek ez ditu barne hartzen PFEZren kenkariak, eta horrek ehuneko handi batean murrizten du Euskadiko hipotekaren kuotaren ahalegina.

Ondorioz, ia ezinezkoa da Euskadiko gazteentzat etxebizitza bat bakarrik lortzea, aurrezkiak eta/edo familiaren laguntza izan ezean, batez ere Euskadiko hiriburuen metropoli-eremuan, zehazki, Donostialdean eta Bilbo Handian.

**10. grafikoa** Soldatadun 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek merkatu librean etxebizitza bat lortzeko lehen kuota ordaintzera bideratu beharko lukeen hileko soldata garbiaren ehuneko<sup>3</sup>,



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Hipoteka bidez etxebizitza erosteko egin beharreko ahalegina soldataren % 50 baino altuagoa da adin-tarte guztietan, nahiz eta 30 eta 34 urte bitarteko artean nabarmen murrizten den gazteagoekin alderatuta.

Emakumeak dira, beste behien ere, egoerarik okerrera dutenak, beren ahalegina % 63koa delako, gizonena baino 6,6 puntu altuagoa.

Kasu honetan, desberdintasun adierazgarriak daude lurraldearen arabera, Araban etxebizitzaren prezioa baxuagoa delako. Hala, etxebizitza ordaintzeko Arabako gazteen ahalegina soilik da soldata garbiaren % 50 baino txikiagoa.

<sup>3</sup> pisu berriak eta bigarren eskukoak, zein familia bakarreko etxebizitzak barne.


**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

Merkatu libreko alokairu bat lortzeko egoera antzekoa da Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera, eta ahalegin ekonomikoaren tasa % 54koa da, batez beste, soldatadun pertsona baten batezbesteko soldataren gainean, gehieneko % 30eko kuota egokia baino askoz altuagoa. Gainera, ahalegin hori ehuneko 7 puntu igo da 2016tik. Nolanahi ere, batezbesteko ahalegin horren barruan ez dira sartzen alokairua ordaintzeko laguntzak, hala nola Gaztelagun, ezta kenkari fiskalak ere.

Halaber, erosteko eta alokatzeko ahaleginaren alderaketa kontuz egin behar da. Errealitatea da, lehen kasuan, ahalegina aurrezteko egiten dela hein handi batean, aldiz, alokairua ordaintzerakoan, ahalegina gastuari eusteko da.

**11. grafikoa** 18 eta 34 urte bitarteko soldatadun langile batek merkatu librean etxebizitza bat alokatzeko bideratu beharko lukeen hileko soldata garbiaren proportzioa (gastu gehigarriak kontatu gabe, hala nola fidantzak, hornigaien altak, bitartekarien ordainsariak...).



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

- *Erosteko ahaleginaren datuen kasuan ez bezala, alokairuaren ahaleginaren datuak 2016koak soilik dira.*


**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 05. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak

Etxebizitzaren Beharren eta Eskariaren Estatistikak 2021eko udazkeneko datuak jasotzen ditu, eta adierazten du 18 eta 34 urte bitarteko 52.061 pertsonak diru-laguntzaren bat jasotzen dutela eta lehen etxebizitza izateko beharra dutela.


**12. grafikoa** Diru-sarreraren bat duten eta lehen etxebizitza lortzeko beharra duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen bilakaera, sexuaren arabera. 2019-2021



2019ari dagokionez, pandemia tartean zela, nabarmen igo da kolektibo hori, eta % 7,9 igo da behar hori duten eta diru-sarreraren bat duten pertsonen kopuru osoa. Behar hori duten emakume gazteen kopurua ehuneko puntu bat gutxiago igo da gizonena baino (% 7,4 vs % 8,4).

Laneko ezegonkortasuna agerian geratu da diru-sarreraren bat duten eta lehen etxebizitza lortu nahi duten gazteen talde horretan sakontzerakoan. Hala, beraiek hala adierazita, 38.408 gaztek ez dute diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik behar hori asetzeko. Horrek esan nahi du, 4 gaztetik 3k lehen etxebizitzara sartzeko beharra dutela. Egoera hori gehiago nabari da emakumeen artean gizonen artean baino.

**13. grafikoa** Lehen etxebizitzara sartzeko beharra duten gazteak, horretarako diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituzten kontuan izanda, sexuaren arabera. 2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila




**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

Azkenik, estatistika horrek gazteen beste talde bat hauteman du: 32.186 gaztek ez dute inolako diru-sarrerarik eta, hala ere, emantzipatzeko eta lehen etxebizitza lortzeko beharra dutela adierazi dute. Beraz, guztira, EAEn 84.000 gazte baino gehiago daude emantzipatzeko beharrarekin, eta horietatik 13.654 pertsonak soilik, hau da, 6tik 1ek planteia dezake modu errealista batean merkatu librean etxebizitza bat erosi edo alokatzea.

**14. grafikoa** Lehen etxebizitzara sartzeko beharra duten gazteak, horretarako diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituzten kontuan izanda, sexuaren arabera. 2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila


**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 06. Etxebiden izena emanda dauden etxebizitzaren eskaria

Etxebideko etxebizitza babestuen eskarietan titular gisa ageri diren gazteen kopurua 30.798 pertsonakoa da. 2020ari dagokionez, kopuru hori apur bat jaitsi da (-% 3,3), eta beherakada apur bat handiagoa izan da alokairu-eskarian (-% 4,3) erosteko eskarian baino (-% 1,2).

**15. grafikoa** Etxebiden izen eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, eskatzen duten erregimenaren arabera. 2019-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

Izena eman duten pertsona horien erdiak 30-34 urte ditu. Ehunekoa antzekoa da erosteko zein alokatzeko etxebizitzaren eskaeren kasuan, eta % 10ek soilik du 25 urte baino gutxiago.

### **Etxebiden izena eman duten hiru gaztetik bik alokairuko etxebizitza babestua eskatzen du**

Alokairuko etxebizitza babestuaren eskaria askoz ere handiagoa da gazteen artean: 20.515 gaztek eskatzen dute alokairuko etxebizitza babestua, erosteko etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen bikoitza (10.283 pertsona).


Adin-taldearen arabera, alokairuaren eskariaren nagusitasun hori erabatekoa da gazteen artean, izena emanda dauden % 85ek alokairuko etxebizitza eskatzen baitu.



**ETX**


ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

**16. grafikoa** Etxebiden izena eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, eskatzen duten erregimenaren eta adin-tarteen arabera. 2019-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

**Grafikoa 17** Etxebiden izen eman duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, sexuaren arabera. 2019-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 07. Euskadiko etxebizitza-politikaren erantzuna

XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren konpromisoen artean dago gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia definitzea, sustatzea eta koordinatzea.


Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzatik 2030erako Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategia egiten ari dira, eta etxebizitza da funtsezko jarduketa-arloetako bat; izan ere, horrek Euskadiko gizartearen erronka demografikoari eta emantzipatzeko adina aurreratzeko beharrari erantzuten dio. Hain zuzen ere, emantzipazio-adina aurreratzeko lehentasuneko da Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen aurreikuspenen.

Erronka demografiko horren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak urteak daramatza Euskadiko gazteen zati handi batek jasaten duen lan-egoera kaltegarria arintzen saiatzen, 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean eta 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean jasota dauden diru-laguntzen eta egiturazko neurrien bidez. Izan ere, emantzipatzeko laguntzek jarduketa-ildo estrategiko espezifikoak dute.

### 7.1. Etxebizitza babesturako sarbidea

Azken hiru urteotan, pandemiaren inpaktuak ekarri dituen zailtasunak gaudituz, 4.369 gaztek babestutako etxebizitza eskuratu dute Euskadin. 2020az geroztik Eusko Jaurlaritzaren ekimen publiko gutzia alokairuko etxebizitza babestuak sustatzean oinarritzen den arren eta etorkizun hurbilean eragin erabakigarriak izango dituen arren, egun prezio eskuragarrian dagoen eskaintza iraganeko erabakiek baldintzatuta dago, beraz, azken hiru urteotako esleipendunen % 72k azalera-eskubideko etxebizitza lortu dute eta % 28k alokairukoa. Nabarmentzekoa da alokairuaren kasuan, esleipendunen % 61 emakumezkoak direla, erosteko etxebizitzaren kasuan, berriz, % 47.

**Grafikoa18** Babestutako etxebizitza esleitu zaien gazteak. 2019-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila


**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

### 19. grafikoa 2019-2021 aldian babestutako etxebizitza esleitu zaien gazteak, sexuaren bera

Erosketa

Alokairua



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila


## 7.2. Alokairua ordaintzeko laguntzak

### A.- Gaztelagun

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzaren diru-laguntza hau gazteei alokairuko etxebizitzak lortzen laguntzeko sortu zen eta egiturazkoa bihurtu da; izan ere, datozen urteetarako egiturazko diru-laguntza da, 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean txertatuta baitago. Hala, alokairu libreko etxebizitzak ordaintzeko 275 euroko laguntza ematen du hilean (300 eurokoa hilean 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera).

2022ko azaroan, 3.777 gaztek jasotzen zuten diru-laguntza hori eta abian jarri zenetik 5.914 gaztek jaso dute. Bereziki adierazgarria da laguntza jasotzen duten erdiek 25 eta 29 urte artean dituztela, hori baita Euskadiko emantzipazio-adina murrizteko tarte-gakoa.

### 20. grafikoa Gaztelagun jasotzen duten gazteak 2022ko azaroan



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY


## B.- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa

2022ko irailean, 5.060 gaztek jasotzen zuten Etxebizitzarako Prestazio Osagarriren bat, oraingoz DSBERi lotura. Prestazio horrek, DSBEz gain, beste 275 euro ematen ditu hilean alokairua ordaintzeko (300 hilean 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera).

Euskadin prestazio horiek jasotzen dituzten pertsona guztietatik % 21,6 dira (4 onuradunetik 1).

Etxebizitzarako Prestazio Osagarri horiek DSBEtik aparte sartuko dira laster Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoan, eta Etxebizitza Sailburuordetzak kudeatuko du. Orain arte, 112 gaztek dagoeneko jasotzen dute Etxebizitzaren Eskubide Subjektiboari lotutako prestazio berria.

**21. grafikoa** 2022an Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten gazte onuradunak



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY


### 7.3. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programak

Hutsik dauden etxebizitzak prezio eskuragarrian merkatuan sartzeko, Eusko Jaurlaritzak urte batzuk daramatza ASAP programa eta Bizigune sustatzen. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dio etxebizitza jabeari eta, gero, alokairu eskuragarria kobratzen die maizterrei, ohiko diru-sarreraren % 30 baino baxuagoa (normalean, hilean 250 euro baino gutxiago).


Bada, programa horiek 350 gazteri lagundu diete, eta merkatu libreko etxebizitzak garesti egon arren, emantzipatu ahal izan dute alokairuen kontratu horien jabe gisa.

**22. grafikoa** 2021ean ASAP programako kontratuak eta 2022an BIZIGUNE kontratuak zituzten gazteak

Asap



Bizigune



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

## 08. Ondorioak

- a. Duela bi hamarkadatik, euskal gizarteak erronka demografiko handia du, eta dagoeneko eragin sakona izaten ari da politika publikoetan, etxebizitzaren euskal politikan barne.
- b. Gazteen biztanleria murriztuz joan da jaiotza-tasa baxuengatik eta migrazio-prozesuen mugengatik, horrek biztanleriaren etengabeko zahartze-prozesua eragin du. 2021ean, EAEn 610 mila lagun baino gehiagok 30 urtetik behera zituzten, mende honen hasieran baino 321 mila pertsona gutxiagok (% 34).
- c. Gero eta gazte gutxiago dauden arren, emantzipazio-tasak murriztu egin dira pixkanaka mende hasieratik. 2021ean, Euskadiko biztanleriaren % 32 soilik zegoen emantzipatuta, duela 10 urte baino 11 puntu gutxiago.
- d. 2008ko Atzeraldi Handiak inpaktu sakona izan zuen orduan enplegu egonkor bila ari zen biztanleria gaztean. 2017tik aurrera Euskadiko ekonomia susperraldi-prozesuan hasi zen arren, atzeraldi horren eraginek inpaktua zuten oraindik askorengan, eta gazte horiek enplegu prekarioak eta etxebizitzaren merkatura sartu ahal izateko bizitzako ibilbidea garatzeko zailtasunak izaten jarraitzen zuten. Eusko Jaurlaritzako Lan Merkatuaren Erroldaren datuak argigarriak dira:
  - Enplegua duten 25 eta 30 urte bitarteko biztanleak gutxiengoa dira, ia ez dute % 40a gainditzen adin-tarte horretan. Hala ere, ehuneko hori bikoiztu egiten da 30-35 urteko adin-tartean, baina oraindik, hogeita hamar urte beteta dituztenen artean, kolektibo oso garrantzitsu bat dago lanik gabe.
  - Begirada enplegua duten gazteengan jartzen badugu, erdiak baino gehiagok (% 53) aldi baterako enplegua du 30 urtera heldu arte. Adin horretatik aurrera, ehunekoa pixkanaka jaisten da, % 33ra heldu arte 20-34 urteko tartean.
  - Egoera okerragoa da emakumeentzat egituraz.
- e. Euskadiko gazteen zati handi baten laneko ezegonkortasun horrek nabarmen baldintzatzen du enplegurako sarbidea. Lana duten gazteen batezbesteko soldata ez da hilean 1.600 euro garbi baino altuagoa, kasurik onenean (30-34 urteko tartea).
- f. Egoera prekario horren emaitza gisa, jabetzan eta alokairuan etxebizitza ordaintzeko ahaleginak diru-sarreraren gaineko % 30eko gehieneko kuota desiragarria gainditzen du Gazteriaren Euskal Behatokiaren arabera, eta nabarmen igo da azken urteotan batez beste % 50era heldu arte. Are altuagoa da emakume gazteen kasuan.
- g. Nolanahi ere, nabarmendu behar da kualitatiboki egoera bestelakoa dela etxebizitza erosi edo alokatuz gero. Erosteke ahaleginaren kasuan, ahalegina ondasun-aurrezkoa da, alokairua ordaintzeko ahalegina, berriz, errentaren gastuari eusteko ahalegina da.
- h. Euskadiko gazte askoren ahulezia ekonomiko hori nabarmentzen da etxebizitzaren beharrak eta eskaria aztertzerakoan. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko inkestaren arabera, lehen etxebizitza lortzeko beharra adierazten duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte gehienek ez dute diru-sarrerara nahikorik behar hori asetzeko.



**ETX**

ETXEBIZITZAREN  
EUSKAL  
BEHATOKIA  
  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA / BASQUE  
HOUSING OBSERVATORY

- i. Etxebiden babestutako etxebizitzaren titular gisa izena eman duten gazteen kopurua 30.798 pertsonakoa da, eta 3tik 2k alokairuko babestutako etxebizitza eskatzen dute, ezin dute erosteko babestutako etxebizitza bat lortzeko aukera planteatu ere.
  - j. Eusko Jaurlaritzak gazteen emantzipaziorako sustatzen dituen diru-laguntzen eta programen irismena nabarmena da, 4.369 gaztek babestutako etxebizitza lortu ahal izan baitute azken hiru urteotan.
  - k. Gainera, diru-laguntzek eta prestazioek diru-sarrera baxuak eta ertainak dituzten gazteei alokairu libreko etxebizitzetara sartzen eta emantzipatzen laguntzen diete, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza hutsen mobilizazio-programek prezio eskuragarrian emantzipatzen laguntzen dute. Guztira, Euskadiko 9.200 gazte baino gehiago daude emantzipatuta programa eta diru-laguntza horiei esker.
- Nabarmendu behar dugu adinaren araberako daturik ez dugun arren, Euskadin Foru Aldundiek etxebizitzak erosi eta alokatzeagatik dituzten kenkari fiskalak oso handiak direla eta urtero 400 milioi eurotik gorakoak direla kenkari horiek dituzten pertsona zergadun guztientzat.
    - Erosketaren kasuan, zergadun bakoitzeko 36.000 euroko kreditu fiskala mantentzen da, eta, zalantzarik gabe, faktore adierazgarria da emantzipazio-prozesuan, baita etxebizitza erosteko aukeretako bat ere. Kenkari hori % 8ra heltzen da erosketan inbertitutako kopuruetan eta finantzaketa-gastuetan, eta kenkariaren muga 1.530 eurokoa da. 30 urtetik beherako gazteen kasuan, % 23koa da, eta urteko muga 1.955 eurokoa da.
    - Bestalde, 30 urtetik beherako gazteentzako alokairuaren kenkaria urtean ordaindutako kopuruaren % 30ekoa da, eta muga 2.400 eurokoa da. 30 urtetik gora, kenkaria ordaindutako kopuruaren % 20ra murrizten da, eta muga 1.600 eurokoa da.